


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko uztailaren 21a / VI. urtea / 188. zenbakia

Iruñea, musikaren hiriburua

Hiru egunetan zehar, mundu zabaleko musikariak bilduko dira Iruñean, Womad izeneko jaialdien barruan, musika kultura ezberdinak ezagutzeko bide ezin aproposagoa dela erakutsi nahian. 1982an Peter Gabriel musikari britainiarrak lehen Womad jaialdia egin zuenetik hona euria bota du ederki, eta horrek lagundu du hasierako porrota arrakasta bihurtzen. Egun Womad Fundazioak mundu osoan antolatzen ditu kontzertuak eta bultzatzen ditu kulturen arteko hurbilketak, eta hau izango da Euskal Herrira hurbiltzen den lehendabiziko

aldia. Heldu den ostegunean hasita, Mike Scott (The Waterboys taldekoa), Juan Perro (Radio Futurako Santiago Auseron), Remmy Ongala Tanzaniako kantaria edo Margareth Mezenes brasildarra, bakar batzuk aipatzearen, ariko dira Nafarroako hiriburuan, eta beraiekin batera musika tailerrak, artisauak eta kaleko giroa ere izango da ikusgai. Honen bidez, era berean, Nafarroako jaialdiei hasiera emanen zaie.



Talde afrikarrak izango dira nagusi Iruñeko jaialdi erraldoietan.

Beroa

San Ferminak joan dira, eta beraiekin lorik gabeko arratsak. Painulu gorria, peñen atorra... dena garbitua eta altxatua dago datorren urterako. Iruñekoak ziurrenik egunkariz, telebistaz eta agian zuzenean ere jarraituko zenuztuzten; paregabeak, urtero bezala, Kaliforniako gazte hari pasatutakoa kenduta.

Lesakakoak ere bukatu ziren

aspaldi, hauek ezbeharrrik gabe, hala uste dut behinik behin. 'Txakurrek' ere ez gintuzten bixitatu; egia erran ez genuen horrelakorik espero Doneztebeko bestetan egin zuten 'exibizioaren' ondotik: pelotazoak, negar gasak, detenituak, atxilotuak... Lesakan ez zen horrelakorik gertatu, zorionez.

Orain herria lasai dago, soi-

Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



nurik gabe, jendetzarik gabe... baina bero izugarriarekin, dutxatu orduko berriz izerditan dugu gorputza. Estatu Batuetan ere heriotza ugari gertatu dira tenperatura altuen erruz. Nire aitak balkoian egin izan du lo, behin baino gehiagotan, etxe barruko beroa jasaten ez duelako, baina gure kuadrilan eguzkiari aurpegi ona jartzen diogu azal beltzaranaz maite-

mindurik baikaude; hamaika ordu pasatzen dugu igerilekuan.

Agudo, eguzkiari aurtengoz adio erran baino lehenago errekupeazioak etorriko dira eta berriz ere urteroko martxari ekingo diogu, oporraldiak arrunt motz gelditzen baitzaizkigu. Baina, hori bai, urte guzian hurrengo San Ferminak noiz etorriko zain egonen gara.

LEHIAKETAK

Atarrabiako udalak 1995ko festako egitarauaren XI. kartel lehiaketa antolatu du. Lehiaketa Nafarroan bizi edo jaio diren artistek hartu dezakete parte nahi adina obrekin, baina lanak originalak izan behar dute. Lanak aurkezteko epea abuztuaren 30ean akitzen da eta Atarrabiako Kultur Etxean aurkeztu beharko dira, Kale Nagusiko 67. zenbakian.

Bilaketa Agoizko talde kulturalak Tomas Fermin de Arteta Nazioarteko Narrazio lehiaketa antolatu du. Aurkezten diren lan guztiek originalak izan beharko dute, gaztelaniaz idatziak eta ez du beste lehiaketa batean saritua izan behar. Obrek bi orrialdetik seirako luzera izan behar dute eta makinaz pasatuak alde bakar batetik. Lanak uztailearen 28a baino lehen aurkeztu behar dira taldeak Agoitzen duen egoitzan, Francisco Indurain kalean.

ERAKUSKETAK

Diego Sanchez-en pinturak daude ikusgai Burlatako Udalen Kultur Aretoan, abuztuaren 6a arte. Burlatarraren lanak ikusteko ordutegia arratsaldeko 7etatik 9etara izanen da astearte eta larunbata bitarte, eta 12etatik 2etara igandetan. Astelehenetan itxita.

'Gustavo de Maeztu pintore kosmopolita' izeneko erakusketa ikusteko parada igande honetan amaituko da, beraz aukera aparta da asteburu hau Lizarrako Gustavo de Maeztu Museoaren erakustokian. Ikusgai dauden pertsonaia honen pinturak 1920tik 1926ra bitartekoak dira.

ZINEMA

'Kristal hautsien gaua' izeneko pelikula eskainiko dute Gaintzan heldu den ostegunean, Araitz-Beteluko Udal Euskara Zerbitzuak antolatu duen Zinea Udan deritzan zikloaren barruan. Ostegunero, bailarako herri batean ikusi ahal izango da pelikula bat, gaueko hamarretan denak.

BERTSO JAIA

Jokin Sorozabal gipuzkoarra ariko da kantari Zubietako plazan heldu den asteartean, hilak 25, gaueko hamarretatik aurrera. Iñaki Agirresarobe bertsozale eta EGUNKARIAKO bertso kritikariaren aginduetara ariko da Solozabal, bakarka alegia.

Jon Sarasua Mikel Mendizabal eta Xabier Zeberio bertsolari gipuzkoarrak ariko dira nor baino nor Aranoko herriko plazan heldu den asteartean, hilak 25, arratsaldeko sei terdietatik aitzinera. Hiru bertsolari arrunt diferente baino joku handia eman dezaketenak euren giroan ongi sentitzen baldin badira. Arano aproposa izan daiteke horretarako.

NAFAR KRONIKA

GAIZKA ARANGUREN

UEUkoak Iruñean

Joanen gira Gaztetxe alderat?

-(...)
-Zelan esan dozu?
-Ia Gaztetxe aldera joanen garen dio.

-Ah!...

Gaztetxean badira ohiko kontsumitzaileak UEUkoen zain:

-Adi, adi! Hor datoz UEUkoak!

-Aurtengo uzta ez da makala!

-Hörko koadrila hori ikusi duzu?

-Euskal Nazio Batuak dirudi.

-Beti erran dizudana: konfederazioa, konfederazioa da gure etorkizuna! (...)

-Kaixo! Gabon. Lau kaña, txikito bi eta kalimotxo bat.

-To! To! To! Nik bok bat erran dut.

-Zer?

-Bok bat!

-Zer diño?

-Zuritoa nahi duela, ez kaña.

-Ah!

-Hara! Entzun! Txakun da! Maite duzie Txakun?

-Bueno, ejem... Ni heterosexuala naz...

-Kar, kar, kar! Musika talde hau gustokoa duzun galdetzen dizu.

-Ah!... Zelan ba, Zuberoakoa zara?

-Xiberukoa? Ez, ez... Haiendako 'manexina' niz.

-Eh?

-Baxenafartarra. Nafarroa Beherekoa da.

-Ah!... Zelako euskara polite dozuen iparraldekoek!

-'Garazi' oraindik irikita egonen da. Joanen gara?

-'Garazi'? Tabernak 'Garazi'

du izena?

-Bai.

-Ni Garaztarra niz!

-Kontxo! Donibane Garaziko batekin ari naz berbetan!

-Ez, ez. Garaztarra niz baina Izpurakoa.

-Eh?

-Garazi eskualdea da, baina Kattinen herria Izpura da.

-Ah! (...)

Zelatan zirenak:

-Mekaguen! Horrek badaramatza 'Garazi'ra.

-Gu ere joan gaitezke gibeletik.

-Bai, baina baxenafarrekin ligatzeko lehen urratsa emana du gidari turistikoarena egiten ari den horrek.

UEUko koadrila 'Garazi' taberna, edaria eskatu ondoren:

-Abestuko dogu?

-Bai! Ontsa! Biziki maite dut kantuz aritzea!

-'Por el rio Nervion pasaba una gabarra...!!!!'

...???!!!

...benga Kattin! 'rumbala rumbala rum, con once jugadores...'

-Eh Oh! Bertzeren bat otoi!

-Ez jatsu gustetan?

-Bon... Ez dakit hori...

-Athletic neska, aupa Athletic! (...)

Bien bitartean, harrapakariak:

-Bizkaitar horrek ez du ligatuko.

-Ez. Ni p'a Dios. Oraintxe dugu aukera Xabi: 'Adiskide bat bazen, orotan bihotzberaaaa...'

...poesiaren hegoek, sendimenduzko bertsoek...'

-(Gurekin ari dira, egina dugu Mikel, egina dugu! Gaur Larraonara lotara!).

-(Maddi! Zer Kattin? Ez nuzu batere kontent. Nun dituxu Iruñeko neska xarmangarri horiek?)



ASTEKO PERTSONAIK



Julio Oroz
Enpresaria

Hiru urte eta bederatzita hilabeteko kartzela zigorra ezarri berri dio Juan Oroz Irurritako enpresariari Municheko (Alemania) Probinzia Auzitegiko penaleko bederatzigarren epaimahaiak, plutonio kontrabandoan parte hartzeagatik. Espero baino zigor txikiagoak izan dira hauek, Municheko Probinzia Auzitegiko epaileak iritzi izan baitzion delitua egitera bultzatuta izan zela bai bera bai Javier Bengoetxea donostiarra ere. Iazko abuztuaren 10an atxilotu zituen biak Alemaniako Poliziak 363 gramo plutonio kontrabando baten konplizeak zirelakoan. Bi atxilotu euskalerritarrek zigorraren erdia baino ez dute bete behar izango.



Valentin Redin
Udal teknikaria

Valentin Redin izango da Iruñeko udalaren kultura zuzendari berria, Joaquin Pascal sozialistak hala eskatuta. Valentin Redin Informazio Bulegoko zuzendaria zen orain arte, eta postu hori Santiago Gomez kazetariak beteko du hemendik aurrera. Orain arte, Iruñeko udaleko Kultura saila Hezkuntza eta Kirolakoarekin zegoen lotuta, baina Javier Chorrut CDNko (Convergencia de Democratas Navarros) alkate berriak birmoldaketa sakon samarrak egin nahi ditu, antza, eta hortik azken orduko aldaketa hauek. Beste hainbat eta hainbat postutan ere aurpegi berriak ikusi ahal izango dira hemendik aurrera Iruñeko udaletxean.

EKITALDIK



Correpueblos izeneko egitarau kulturala uda osoan zehar prestatu du Nafarroako Gobernuko Sustapen Sozio-Kulturalaren Bulegoak, eta asteburu honetan ere zenbait herritan —gehienak txikiak eta aukerarik gabe ikuskizun handiak ekartzeko— ekitaldiak izango dira. Gaur Artiedan 'Liberad a Willy' pelikula ikusi ahal izango da gaueko hamarretatik aurrera, plazan, eta Elgorriagan 'Leyendas de nuestra tierra' antzezlan eskainiko du Shanbu Teatro taldeak. Bihar, larunbata, antzezlan bera Agilarren ikusi ahal izango da, eta pelikula, berriz, Bidankozen. Igandean, Murelu-Kuenden pelikula eskainiko dute eta Shanbu Doneztebe-Deion egonen da. Astelehenean, berriz, Belaskoainen izango da 'Liberad a Willy' ikusteko aukera, eta Lantzen antzezlan izango dute.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Presoen umorea, ezezagun hori (III)

Jaiak gaur hasiko dira

IRURTZUN

Gaur jaurtikoko dute Irurtzunge udaletxetik txupinazoa, heldu den asteazkenara arte jai heldu dela iragartzeko. Musika, dantzaldiak, kirola eta giro ona ez da faltako sei egun hauetan Sakana herrian.

Arratsaldeko seietan izango da txupinazoa, eta ondoren kalejira herriko kaleetan barna, txaranga, erraldoi, buruhaundi, gaitero, txistulari eta dantza taldearekin. Ondoren, arratsaldeko zortzietan, Orritz dantza taldea ariko da Foruen Plazan. 22.30etan zezen suzkoa aterako da, eta gauerdia aldera, dantzaldia izanen da Egan taldearekin. Goizeko ordu batean berriro kalejira abiatuko da Iraunkorrak txarangarekin.

Bihar, larunbata, goizean goiz hasiko dira ekitaldiak, zazpietan kittoka (pilota) partiduak antolatu baitira estali gabeko pilotalekuan. Ondoren, eguerdian, areto-futbola izango da eta ordu laurden bat geroago hasiera emanen zaie helduentzako herri jolasei. Arratsaldeko zazpietan kalejira antolatu da, eta 20.30etan dantzaldia Jator taldearekin. 22.30etan zezen suzkoa aterako da, eta goizeko ordu batean dantzaldia aurreko talde



Jai garaia dugu hau.

berarekin. Goizeko ordu bata t'erdietan kalejira abiatuko da berriro, Los Incansables txarangarekin.

Igandea izango da egun nagusia, eta kittoka partiduen ondotik meza nagusia izango da

11etan. Ordu berean txirrindulari lasterketa hasiko da, eta 11.30etan kalejira. Arratsaldeko bostetan Irurtzunge VIII. Pilota Txapelketako finalak jokatu dira, eta 19.30etan Irurtzunge Dantzari Txikien Eskolaren

emanaldia izango da plazan. 20.30etan dantzaldia Drindots taldearekin, eta 22.30etan su artifizialak.

Astelehenean, hilak 24, kittoka partiduak, egunero bezala, eta eguerdian tren pneumatikoa, puzgarriak eta zezen mekanikoak paratuko dira plazan, haurren gozagarri. 14.30etan Gazteen Herri Bazkaria izango da eta 16.00etan Mus txapelketa azkarrak, Muti-Mar tabernan. 20.00etan dantzaldia Inguma taldearekin eta zezen suzkoaren ondotik, goizeko 2.30etan Rock Jaialdia Baldin Bada eta Sarraski taldeekin.

Asteartean Etxarri-Aranazko Abesbatzak kantatuko du 11etik aurrera egingo den Meza Nagusian. Arratsaldeko lau t'erdietan pilota txapelketaren finalak izango dira, eta 20.30etan dantzaldia Eklipse taldearekin. Gauerdia aldera talde honekin herri karaoke egiteko aukera izango da.

Asteazkena, hilak 26, izango da jaietako azken eguna. Goizeko partiduen ondotik eguerdian kalejira izango da eta ordu batean berriz pilota partiduak. 14.00etan jubilatuekiko bazkaria dago prestatuta, eta 16.30etan haur jolasak eta berrendua izango dira.

Intsumitu presoen kolektiboaren umorea ingelesa eta inteligentea izateaz gain, umore krudela da, seguru asko inguruak, kartzelak alegia, horretara bultzatzen duela. Normalean ez dugu norbaitekin batera barre egiten, norbaiten lepotik baizik. Gaur aztertuko dudana txantxa, 'Azukre koxkorra' izenekoa, gure txantxa ankerren artean ankerrena da. Kasik 'gore' umoreaz ari garela esan daiteke, 'gore' samarra baita kide bati eguneko momenturik hobereana inolako gupidarik gabe zapuztea.

Espetxeko ohikerian murgildurik zaudelarik dasta ditzakezun une gozo murrizten artean gozoena da goizean goiz, eguerdi aldera, bazkal aurretik, bazkal osteko lo kuluxka bota eta gero, gimnasia joan ondoren edota afal aurretik, hau da, edonoiz, ekonomatoan erositako kafea, tea edo beste edozein infusio hartzea. 'Azukre koxkorren' grazia, pradoxikoki, une gozo hori garraztean datza. Horretarako, besterik gabe kafea edo dena delakoa edatear dagoen laguna lokalizatu eta jarraian supitoki bere edabean azukre koxkorra sartu behar da. Jakina, ziri sartzeak grazia eduki dezan, ez zaio gozotzaileari azala kendu behar.


Tutera

Bardeei buruz liburua argitaratu du Landazuria talde ekologistak

TUTERA

'La fábula del parque de las Bardenas' ('Bardeetako fabula') izeneko liburua aurkeztu du aste honetan Tuterako Landazuria talde ekologistak, inguru honi buruz duen iritzia azaltzeko. 35 orrialdeko liburuxka honetan Bardeetako Parke Naturalaren proiektuaren inguruan taldeak duen jarrera dago azalduta, irakurketa erraza eta atsegina izan dadin. Rafael Sanchez eta Jose Antonio Perez-Nievas taldeko partaideek azaldu zuten asmoa.

Liburuan hainbatetan polemikoa izan den alderdi honen erabilerari buruz zenbait gai jorrazten dira, denak funtsezkoak Bardeen etorkizunerako. Horrela, ureztapenak Landazuria dermionan, turismoa, nekazaritza, abeltzaintza, ehiza, basoen birlandaketa, tiro eremua, Ferial urtegiaren ondoan eraiki nahi den kanpina eta urtegia bera dira,



Bardeetako irudi bat.

besteak beste, orrialdeotan aipatzen direnak, beti ere talde ekologistaren ikuspuntutik. Argudioei indarra eman eta irakurketa atsegina izan dadin, Landazuriak zenbait animalia aukeratu ditu irudiak osatzeko: ganga,

ganga azpibeltza, arrano beltza, saia, kurriloa, azeria, untxia, hegatzabala, pinua eta ekologista, beste batzuen artean.

Asteleheneko prentsurrekoan azaldu zuten, Landazuria taldeko partaideek euren proposamena zehaztu nahi izan dute liburuan. Horretarako, eta iradokizunak irakurtzeko aukera zabala ematearren, liburua dohainik emango zaio eskatzen duen orori, eta horretarako erakundearen egoitzara (Trinquete kalea, 1) joatea besterik ez dago. Halaber, Bardeetako herrietako udaletxetara, liburutegetara eta eskolara bidaliko dira hurrengo asteotan. Argitalpenetan parte hartu dute Carlos Patiñok marrazkiekin eta Jose Antonio Martinezek argazkiekin, eta diseinua Javier Esparza eta Alfredo Sarasaren ardura izan da.

Bostehun ale argitaratu dira, 600.000 pezetako kostuarekin, eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza % 75ekoa izan da.

Arantza

Antzerki saria eskuratu du eskolako taldeak

IRUNEA

Arantzako eskola publikoak 'Antzerkigintza Euskaraz' 150.000 pezetako saria jaso du 'Aberatsen Kontuak' antzezlanagatik, Nafarroako Gobernuak OHOn banatutako lehen saria, alegia. Irakas-kuntza Ertaineko ikastetxei dagokienez, Iruñeko Padre Moret institutuak 200.000 pezetako dirulaguntza jaso du 'Behi Memoriak' antzezlanagatik.


OHOn banatutako bigarren saria —100.000 pezetakoa— Tafallako Garces de los Fayos ikastolak 'Petrikillo' lanagatik jaso du eta Iruñeko Axular ikastolari berriz, 75.000koa eman diote 'Txalaparta, pirata eta altxorraren txirla' lana dela eta.

Padre Moret institutuak eszenografia hobereanari emandako saria —75.000 pezetakoa— jaso du eta Zizurko San Fermin ikastolak 50.000koa jantziengatik.



Belloch mega ministroak hamaika aldiz errepikatu du intsumituak elkartasungabeak —krudel samarrak, beste modu batean esanda— eta tontoak garela. Pinpina bihotzeko abeslariaren antza izugarria duen agintari hau agian ez dabil uste bezain oker; izan ere, krudeltasuna eta sinpletasuna dira 'Azukre koxkorren' ezaugarri nabarmenenak, eta hain zuzen ere horietan oinarriturik txantxak sekulako arrakasta lortu du geure kolektiboan barna. Zer pentsatzerik ematen du horrek.

Portzierto, tabernako barran lasai aski haren inguruan pentsatzen eta garagardotxo bat hartzen ari zarela zeure koadrilako preso ohiak edalontzian txikle bat azala eta guzti sartzen badizu, ez ezazu pentsa kartzelan tontotu dutela, eta bi zaplastako emanda espabilatuko duzula, presoen umore ezezaguna izanen baita, 'gore' samarra, baina umorea, besterik ez.



Womad jaialdi bateko irudia.

Womad izeneko jaialdiekin zabalduko dira heldu den astean aurtengo Nafarroako Jaialdiak Iruñean. Irekiera aparta, hiriburuko karriketan mundu osoan fama ederki lortua duten taldeak ariko baitira. Peter Grabieli musikari britainiarrak duela 13 urte sortuta, Womad Fundazioak hainbat herritako kulturak hurbiltzea du helburu, beti ere musikaren bidez.

Womad geurean

A.B. / IRUÑEA

Lehen Womad jaialdia Shepton Mallet herrixkan (Ingalaterra) ospatu zen 1982an, Peter Grabieli Genesis talde ohiaren partaidearen ideia batek sortua. The Chieftains, Simple Minds, Echo an the Bunnymen eta antzeko taldeak egon ziren kontzertu erraldoi hartan, baina soilik 15.000 ikusle azaldu ziren, eta porrot ekonomikoa itzela izan zen antolatzaileendako. Ez zuen etsi, baina Peter Grabieli. Bere ibilbide artistikoa beste herrialdeetako —bates ere Afrikako— musikekin izan zuen harremanaren ondorioz mundu zabaleko musika guztiak bildu zituen jaialdia antolatzeko ideia sendoegia zen horretarako, eta aurrera egin zuen britainiarrak: Womad Fundazioa eratu zuen.

Hasierako helburuen arabera, fundazioaren ardatza munduko kulturak babestu, bultzatu eta hobetzea da, beti ere musikak eman ditzakeen laguntzen bitartez. Hori dela eta, hamahiru urte hauetan, berrogeita hamar edizio inguru egin dira munduan. Gaur egun berebiziko onespina eta fama dute Yokohaman (Japonia), Adelaidan (Australia) eta Reading-en (Erresuma Batua)

egiten direnak. Euskal Herrira estreinako aldiz heldu da aurtengoa.

Ez dira, alabaina, kontzertuak Fundazioaren eginbehar bakarrik. Jaialdiekin batera, grabaketak eta musika taldeei laguntzea, argitalpenak eta heziketarako proiektuak ere aurrera eramaten dituzte urte osoan zehar. Denek dute ardatz herrialde ezberdinetako kulturak hurbiltzea eta komunikazio eta ezagutza faltak eragiten dituen gaizki ulertzeak bastez. Nola, nahiz ere, Womad Jaialdiak dira Fundazioaren ekimen ezagunena eta eragin korrena. Iaz, esate baterako, hogeita hamar jaialdi inguru egin ziren, eta haietan 250 talde inguru ikusi ahal izan ziren, berrogeita hamar herritakoak. Fundazioarekin berarekin batera, enpresa publiko zein pribatuen dirulaguntza izan ohi dute jaialdiek, eta horri esker sendotasun aipagarria du egun proiektuak.

Womad Fundazioaren helburua munduko kulturak babestu, bultzatu eta hobetzea da, beti ere musikak eman ditzakeen laguntzen bitartez.

MUSIKA ETA DANTZA TAILERRAK

Antolatzaileen arabera, jaialdiak bizirik iraun behar du, eta beti ere hiriaren arabera egokitzen da ikuskizunik aproposena prestatzeko. Jaialdiak ez ezik, artisautza saltzaileak, dantza eta musika tailerrak... etengabeko jardunari eusten ahalegintzen dira antolatzaileak. Iruñean kalean egongo da jaia, eta horretarako prestatu da Gazteluko Plazan izango den kontzertuaren antzekoa.


Remmy Ongala tanzaniarra izango da bertan. Hiru egunetan zehar, halaber, lau tailer mota izango dira, denak ordubetekoak eta kontzertuetan parte hartuko duten musikariek bereikiak emanak. Ahotsa, herri soinu-tresnak eta musika-hariak jorratuko ditu lehenbizikoak, eta erritmo afrikarrak bigarrenak. Beste batean Indiako musika-hariak landuko dira, eta laugarrenean perkusioa eta ahotsak. Izena emateko epea

ostegunean eguerdian zabalduko da, Gazteluko Plazan izango den informazio gunean.

Musikarekin batera, jaialdiaren azken helburua da musika gune itxietatik auzotara, eta horregatik hiri zaharriko karrikak eta plazak izaten dira jaialdiaren alderdi naturala. Hala ere, Estatu Batuetan eta Kanariar Irletan iaz izaniko esperientziak erakutsi zuten gune handiak ere oso aproposak zirela kontzertuak antolatzeko. Bi gune bereiztuta izango dira, beraz, Iruñean. Alde batetik zezenplazan ostiralean eta larunbatean izanen diren kontzertuak, mundu osoan famatuak diren taldeekin, eta, bestetik, kaleko animazioa. Osteguneko kontzertuak gain, hiru egunetan, musika, eskulturak, pinturak eta elementu apaingarri franko ikusi ahal izango dira Iruñean. Horretarako hogeita hamar artisautoki paratuko dira zezenplazaren inguruan, eta musika, dantza eta animazioa ez da faltako bertan.

Sarrerak salgai daude dagoneko ohiko tokietan, eta kontzertu bakoitzarena 2.500 pezetan salduko da. Badira, halaber, abonoak eta salneurri merkeagoko txartelak. Uztailaren 26tik aurrera, gelditzen diren sarrerak salduko dira zezenplazan bertan.

Womadeko kontzertuetan jende andana bildu ohi da urtetik urtera, eta egun Yokohama (Japonia), Adelaida (Australia) edo Reading-ekoa (Erresuma Batua) famatuak dira oso.



Vika eta Linda Bulla Togoko ahizpak larunbatean, uztailak 29, egongo dira Iruñeko zezenplazan. Hango talderik arrakastatsuenak da, eta lehenbiziko aldiz heldu dira Europara.



Kontzertu erraldoiekin batera, kaleko animazioa lantzen ere sailatzen da Womad, eta zezenplazaren inguruan artisautokiak eta musika izango dira franko.

Ostirala, uztailak 28

Remmy Ongala & Orchestra Super Matimila (Tanzania)

'Tanzaniako Bob Marley' deituta, Remmy Ongala herri hortako pertsonaia ezagunena da. Miseria eta txirotasuna du gaia ia abesti guztietan, eta bere hitzei musika jartzeko Zairen nagusi den *soukous* soinua hartu du eredutzat, bere musikara egokituta. Indarra da Ongalaren musikaren definizio zentzuzkoenetakoa. Lau gitar nagusik markatzen dute soinua, neuria, eta, ondoan, koro indartsuek. Erdian, Ongala. Orkestra hau da dantza eta erritmoa hobekien markatzen dutenetakoa.

Margareth Menezes (Brasil)

Bahia estatuko hiriburua den Salvador hirian jaioa duela 31 urte, Menezesek txiki-txikitik edan zuen lurralde horrek historikoki izan duen musikaltasuna eta mistizismoa, energia huts-hutsa. Abeslaria, aktorea, parte hartu izan du antzerkigintzan, zirkoan eta operan, eta Brasilgo sari garrantzitsuenak jaso ditu dagoeneko, ibilbide artistiko laburra egin duen arean. 'Elegibo' bere hirugarren diskoarekin lortu zuen fama mundu osoan, eta orduan Talking Heads taldeko David Byrnek gonbita egin zion bere jiran parte hartzeko. Hortik aurrera, Gilberto Gil, Milton Nascimento, Caetano Veloso, Carlinhos Brown eta antzeko artistekin egin du lan, eta ospe handia eskuratu musika brasildararen jarraitzaileen artean.

Bad Boys Batucada (Brasil, Singapur, Frantzia, Australia)

Melbourneko (Australia) musika talde honek Europara egiten duen lehen bisita da hau. Bere musikan nahasten dira Brasilgo Bahiako erritmo beltzak, sambarren tradizioetik ateratako keinuak eta capoeira dantza. Animazio handiko taldea, zuzenean erakusten ditu bere dohain guztiak.

Paban Das Baul & Singing Group (India)

Folk musikaren talderik ezagunena Indian, 1962tik aurrera ari da mundu osoan zehar jirak egiten, eta Allan Ginsberg, Bob Dylan eta Mahalia Jackson artistekin lan egin izan du. Paban —'Samrar' ezizenez ezaguna— taldeko buruak zazpi belaunaldiaren tradizioa jaso du, bere familiarekin batera eskaintzen baititu emanaldiak. Ektara, danborrak, kriskitinak eta antzeko tresnak erabiliz, duela 600 urteko filosofia musikan gauzatzen ahalegintzen da talde hau. Hinduismoa, tandar-budismoa eta islamismo-tufia nahasten dira bertan. Finean, musika eta dantzaren arteko elkarte magiko eta mistikoa.

Hukwe Zawose (Tanzania)

Ekialdeko Afrikako Wagogo herriko jatorrizko interpretea, leindan sartua dagoeneko. Bere kantak eratzeko baliatzen da herri folkloreak, zeremonietako kantataz eta berak sortutako lanaz. Charles bere ilobarekin egongo da kontzertu honetan.

Juan Perro (Espainia)

Radio Futura Espainiako talde klasikoko betiko liderra izan ondoren, Juan Perro ezizenarekin aurkeztu da orain Santiago Auseron. Bere musikak jaso ditu tarraka, latin eritmoetatik ekarpen ugari, eta unibertsal egin da, finean. 'Raíces al viento' bere lehenbiziko diskoari esker, udaberri honetako kantariarik enziunetakoak da Juan Perro.

L.Shankar & Midge Ure (India/Eskozia)

L.Shankar, musika instrumentalarekin egiten dituen bapateko emanaldiei esker, munduko musikaririk ezohikoenetakoa da. Hitzetan sormen handia eta bibolizale trebea, ikusmina sortzen du parte hartzen duen toki guztietan. Midge Ure ezaguna da oso munduan zehar Ultravox eta Slik musika taldeekin eginiko lanarengatik, eta historian sartu zen Bob Geldorfekin batera AID musika taldea osatu zuenetik.

Egun, L.Shankarekin osatzen duen bikoterako idazlea eta musikaria da. Iruñean joko dute estraineko aldiz elkarrekin nazioarteko jaialdi batean.

Larunbata, uztailak 29

U Srinivas, Master Rajesh Srinivas & Party (India)

U Srinivas gaur egungo musika indiarraren barruan soinu-jolek interesgarrienetakoa da. Mandolinan aditua, herrialde hartako herri musikarekin uztartu du maisuki, eta hori 25 urte besterik ez dituela. Jainuen marka. Iruñean Master Rajesh Srinivas bere anaiarekin egongo da, eta Indiako hegoaldeko perkusiojole esanguratsuenetakoekin batera ariko dira biak.

Vika eta Linda (Tonga/Australia)

Vika eta Linda Bulla ahizpak Tonga irlatik (Hegoaldeko Pazifikoa) datoz, eta beren musikak irla honetako irudi zoragarriekin badu zerikusirik: gospel darien ahots-armoniak. Australia, Zeelanda Berria eta abarrek herrietan arrakasta handienetakoa duten taldeetakoak dira, eta lehenbiziko aldiz ariko dira Europaan.

Well Oiled Sisters (Eskozia)


Country-folk eta Rockabilly-Punken arteko nahasketa da gazte hauena. Londresen laketu zirenetik ospe ongi merezita eskuratu dute hango tabernetan emaniko kontzertuei esker. 1993a izan zen jendearen aurrean arrakasta lortu zutenean, eta iaz ateratu zuten lehen lana (Blood and Tears). Hortik aurrera etorri ziren Erresuma Batuan, Europaan eta Estatu Batuetan kontzertuak.

Jaime Anglada (Espainia)

Rock & roll-eko handien tradizioaren jarraitzailea, Jaime Angladak 22 urteko gazte baten istorio eta esperientziak kontatzen ditu, ahots indartsu eta Telecaster bati esker. Berarekin batera etorriko da lau musikari trebek (Xisco Torvisco, Pedro Beltran, Cesar Esteban eta Kiko Pocol) osatzen duen taldea. Kanta barnerakoi eta dantzatzeko aproposak, nahastuta.

Mike Scott (Eskozia)

The Waterboys taldeko fundatzailea eta liderra, 1991tik New Yorken bizi da, eta Geffen diskoarekin (Aerosmith eta Guns n' Roses) dauka kontratua sinatuta. Hortik ateratu zuen 1991ko 'Dream Harder' diska, biraurrean jatorri eskoziarrak eta rock 'made in America' nahasten duena. Orain beste lan batekin margilduta dago. Hor sartuko du The Waterboys taldeko klasikoren bat, 'The Whole of the Moon', esaterako. Hau izango da Euskal Herrian gaitzeko arrakasta lortu zuen taldearen azken hondarra ikusteko aukera, 'The Poges' irlandarrek neurri handikoa eta errebindikazioz betetako beren musikarekin gure kostaldetara bikingoak gisa desbarkatu zutenetik ez baitzen horrelako arrakastarik ikusi.



Juan Perro espainiarrak ostiralean, uztailak 28, joko du.



Kritikontzi

Mila pertsona = 50 arima

XANTI BEGRISTAIN

Azken urte hauetan 'Diario de Navarra' egunkaria erosten ez dudala egia bada ere aitortu behar dut noizean behin irrikitan egoten naizela irakurtzarren aipatutako egunkarian etortzen diren 'aldrebeskeriak'. Adibide moduan hemen jarriko dut 1995eko uztailaren 2an agerituen albistea:

'Elkarri-k, Madrilen, 50 pertsona bildu zituen topaketa isil batean Puerta del Solen'. Hasteko, esan behar dut desinformazio hori ez dela egia, nik ez dakit gezurra,

miopia, asmo gaiztoa, matematika ez menperatzea edota zer arraio izan daitekeen, baina argi eta garbi dagoena da hori ez dela inondik inora egiaren hamarre-na ere. Jarraitzeko esan nahi diot 'Diario de Navarra-ko' zuzendariari, neroni bai, bertan, Puerta del Solen izan nintzela baina ez nuela bera (zuzendaria) hantxe ikusi, berria hurbiletik jasotzen.

Hemen ez dut zehazki adierazi nahi nire jarrera Elkarrik antolatutako topaketa honi buruz, baina kopetan hatz txiki baten neurria duen edonork erraz ulertu ahalko du bat natorrela oso ekintza horrekin, Madrileraino joan bainintzen txit pozik gastuak nire sakeletik ordainduz.

Era berean ere hemen ez dut inolako asmorik iruzkinik egiteko Puerta del Solen agertu ziren Ynestrillas, bere taldea, beste talde falangista, jende artean (gure artean) bultzaka ibili ziren mutil kankailuei buruz, ez eta ekitaldia lehartaraztearen egin zituzten probokazio guztiei buruz hala nola han ginenontzat zalapartaka heriotz zigorra eskatzen. Beren zoritxarrerako azpimarratu behar dut inor ez zela erori haien probokazio maltzurretan eta topaketa labur eta xumea izan bazen ere, arrakasta handiz bukatu zen, hel-

burua lortu egin baitzen.

Baina, hasierako gaira itzuliz esan dezadan Euskal Herriatik hamasei bat autobusetan joan ginela, gehi Madril, Katalunia, Galizia eta abarretik bertaratu zirenak. EUSKALDUNON EGUNKARIAN mila eta bi mila pertsona bitartean bildu ginela irakurri nuen; inolako zalantzarik gabe apreziazio hau 'Diario de Navarra-rena'

baino askoz ere zehatzagoa da; bestela, 'Diario de Navarra-ko' zuzendari matematikari aditu hori, 50 gizaki Madrilerara

eramateko ez al zen nahikoa izango autobus bat? Bai noski!

Ni hemen saiatuko naiz juzkurik ez egiten zer den edo zer ez den 'Diario de Navarra' egunkaria, baina bada ezpada ere azaldu behar dut beste egia, egunkari horretako zuzendaria kontura dadin euskaldun guz-

tiok behintzat ez gabela motzak; hauxe duzue: dagoeneko ha-maika aldiz aipatutako egunkari horretan euskal kutsua duten izen eta gai guztiak txepeltzen dituzte, konparaziora Lekunberri, Etxarri, Irurtzun, Leitza, Urtzi eta abar jarri beharko luketen lekuetan *Lecumberri, Echarri, Irurtzun, Leiza, Huici* eta abar idazten dute nahiz eta Nafarroako Gobernuaren arabera lehenengoak diren ofizialak eta besteak ez. Zergatik egiten ote du halakorik 'D.de Navarra-k'? Nahita, nahigabe, ezjakina izateagatik, euskal kulturaren aurka jokatzegatik, Espainiakoa maite dutelako eta euskalduna berriz gorrotatu? Auskalo! Berriek erantzun beharko lukete.

Bukatzeke hauxe soilik esango dizuet, norbera oso librea dela esateko, irakurtzeko eta sinisteko nahi duena, baina ikusitakoak ikusita, nik gutxitan irakurriko dut 'Diario de Navarra' burua gehiago nahas ez dakidan, zeren eta oraindik behinik behin bai baitakit mila 50 baino gehiago dela, eta Larraungo herririk handiena Lekunberri dela. Hala bedi!



Klasiko bitxi arrant klasiko

Joxemiel Bidador

Eliz-kantak, ze kanta mota!

Euskal literatura zaharrean ditugun lekuko aipagarriren batzuei

Kasu bada azken bolada honen asteburuko arrastiri ia gehienetan jostagarri izan dela Iruñazarreko karriketan barna. Seguratsun neurriak aitzaki, betiereko botere likitsaren zaintzale pretoria-noak okupatuta izan du Arga uraundiak garaitzen duen kaskoa. Dena dela, okupak izan arren, gaztetxetik ez dira ageri. Zeinek daki? Hobe bestenaz. Nabari da arma saihetsean eramateak baraila arras gutxi sortzeko ahalbidea uzten duela, oroit ezpada Fermin deunaren omenezko bestagunetan, eta aurretik ere, alde zaharra inguratzen duten sarrera guzietan dauden memelo tentelak makila bakar batez lagunduta. Galde banatzaile guzietan. Alabaina lehen-dabizi aipatu zio horrek burura dakarkit bestelakorik.

Ez horren behialako neskengun lurrindu batean izan zen. Barrunbe oro sobera busti, ederki bero, ardanegiz ardanegiko ohizko ibiltze erratu ixilean, zirimol gogaigarri baten baino besterik ezina zen aditzen. Larunbat gehieneko mozkortze bidean barna abiatuak, gorpugaiari alde edo moldez gogorkiro gaztigatzeko ahalegin goxoan. Ziplo batean, lasterka eroak eta ke laino mingots garratzak. Txintik ere esan gabe, desenkusatu behar lehenengo lerroitik. Enbaten balenatik ihes, hodei lodien artean kurri, bestelako langarren aiduru, Lanbroara arribatu. Beharrik.

Arteka marteka eliztarren pilaketa nabariagoa suertatzen zen, arno basoen hustutze ustiaketa usuak salatu gisaz, tabernaren populazio gehitze neurrigabeakoak, kili-kolo desatsegin zimikogarria ororen sabel sakontasunenean sarraraziz. Apeztegiko zurdatz zorrotzak nahiago halako trantzea baino. Maiolaztatzea kasik beharrezko hagi, izua zela eta. Tabernarik taberna itzal urdin arrotzen ibilkera zurrumbilotsuak sortu dunbots azantzagarri asaldakorra geroz eta hurbilago, geroz eta peril gordinagoa.

Anitz jenderen maisetate ixilari aurre harturik, deslaiki lotuz gelditu ele alper ilunak, haiek atentan so geratu ziren, beldur ikara artegak aidean sentiaraziz. Oro irizkide horretan. Orenean, alkohol eramana, apika, kantetan hasi zen hau, eta zer bestenaz espazen bildutako eliztarren kanta mar-

txosoa. 'Hacia tí morada santa, hacia tí tierra del señor, caminantes, peregrinos, vamos hacia tí'. Txakurraren lehengo irkaitz goxoa zinez aldatu zen orduan. Malfizio beltz aditu izan bailuen zurbildurik, harri eginda, ixildu jarraiki, jarrera harroari ezin eutsiz, makurtu burua eta atzera egin. Horren haundia dugu gure jaunaren ahalmena, gure jaungoikoaren poterea. Beldurra amatatu, pozkarioa areagotu, farre sentikortu eta benetakoa egin zen taberna osoan.

Nik ez nerrake biziki ozenki holakoetan, euskal eliz-kantu batek etekin berbera izan lezakeenik, baina, badaezpada ere, euskal literatura zaharrean ditugun lekuko aipagarriren batzuk bihoaz oratu. Lehen eta behin, Joanes Etxeberri Ziburukoaren *Noelac eta bere cantica espiritual* Bordelen 1631. urtean ageri zen lanaren aipua ekarri behar. Liburu honen argitalpenak aski ugariak izan ziren, baina ez Bernardo Larregiren 1763. urteko *Cantico izpiritualac* idazkiak izan zituen beste. 1734. urtean eta Pabeko hirian xiberutarrandako liburuxka bat inprimatu zen izenburu honen azpian, *Othoitce eta cantica espiritualac Zubero herrico*. Bestalde, beste xiberutar batek, Zunharretako Manuel Intxauspe Duthurburuk hain zuzen, *Kantika saintiak* izenburuko idazkia agertarazi izan zuen 1897ean 82 urte zituela. Intxauspe honen gora beherak aski interesgarriak jazo dakizkioke baten baino gehiagori. Egun Baionako euskal museoa den leku berean aritu zen urte franko kape-laua, izan ere, bertan Leon donearen ospitalea baitzen, 1869. urtean hango apezpikuak, Lacroixek, I. Batikanoko biltzarrera eraman zuen arte laguntzaile. Bonaparteren kolaboratzaile ere izan zen, eta bere euskarazko lanak ugariak ditugu, aipagarrienetakoen artean 1851. urteko *Jincoac giconeki eguin patoac* dagoelarik, bestaldekiz Zuberoan gehien erabili izan den debozionarioa, nahiz beste edizioen izenburua ezberdina gerta, *Uscaldunaren laguna* hain zuzen, edo 1858.ean Bonapartek berak Londresen agertarazi zuen 512 horrialdetako *Le verbe basque* lan mardul eta zehatza, 500 aleetako edizio zaindu batean.



■ Iruñeko Hiria Xake Torneo irekiko bederatzigarren ihardunaldiko partida, 1995eko urtarrilaren Sean jokatu.

Unai Garbisu, 2.295 ELOkoa (Euskal Herria)-Sergio Estremera, 2.365 ELOkoa (Espainia).

1.e4, c5; 2.Zf3, d6; 3.d4, d4; 4.Zd4, Zf6; 5.Zc3, Zc6; 6.f3, e5; 7.Zb3, Ae7; 8.Ae3, Ae6; 9.Zd5, Ad5; 10.d5, Zb4; 11.e4, a5; 12.Dd2, Zd7; 13.Ae2, h6; 14.0-0, Ag5; 15.f4. Ederki asko irekiko dute zutabea, eraso errazteko. 15... f4; 16.Af4, Db6 xa; 17.Ehl, Af4; 18.Df4, 0-0; 19.Gf3, Ze5; 20.Gg3, Zg6;

21.Dd2, aG-e8; 22.Gf1, Za6; 23.Ad3, Zc5. Ikus koadroa. Beltzek oker txiki bat egin dute, txurien peoi bat 'pasatua' uztea ekarriko duena.

24.Df2, Dc7; 25.Zc5, Dc5; 26.Dc5, c5; 27.Ag6, g6; 28.Gf8 xa, Gf8; 29.Egl. Bestela, matea zen. 29... Gf4; 30.Gd3. Sarrera ekidiezina izanen da, beltzek atzera egiten ez badute. 30... Gf7; 31.Gf3, Gf6; 32.Gf6, f6. Txuriek ez dute problemarik izanen partida borobiltzeko. 33.g4, Ef7; 34.Ef2, Ee7; 35.Ef3, Ed6; 36.Ef4, b6; 37.b3, Ee7; 38.h4, Ed6; 39.h5. Peoia jan edo 'g5' egitea berdin da. Posizioa hartu dute txuriek, eta beltzek amore eman zuten.



Ostadar Ingurugiro Heziketarako elkarteak orain dela hiru urte sortu zen Nafarroan, lagun talde baten eskutik. Natura eta ingurugiroarekiko ardurak guztiak batuta, ezaugarri hori bera da elkarteko gaur egungo jardueraren ardatza. Natur ikasgela eta udako kanpamentuen bidez, haurrek naturarekiko duten jarrera aldatu nahi dute Ostadar elkarteko kideek.

Naturaren Ostadarra

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Ostadar Ingurugiro Heziketarako elkarteak orain dela hiru urte inguru sortu zen Nafarroan, ingurugiroari buruzko ikastaro batean topo egin zuen lagun talde baten eskutik. Cristina Alfonso, Alberto Jimenez, Lourdes Garcia eta Javier Arbuñesek osatzen zuten talde hura, eta egun, beraien dira Ostadar elkarteko buruak.

Jaio zen une beretik bete nahi zituen helburuak zehaztu zituen Ostadar elkarte nafarrak: ingurugiroari buruzko lanak egin, eremu honetan dauden arazoak jakinarazi eta heziketa landu, «jendeak dituen ohitura kaltegarri guztiak aldatzeko asmoz». Horregatik, hain zuzen, haurrak dira Ostadarrek dituen bezerorik garrantzitsuenak. Aukera zabala bada ere, elkartearen eskaintza, oro har, bi atal nagusitan bana daiteke. Alde batetik ikasturtean zehar natur ikasgela deritzon programa du martxan Ostadarrek eta bestetik, udako kanpamentuak antolatzen ditu haurren oporraldian. Ingurugiroa da bi atal nagusi hauen oinarria. Natur ikasgelan ikastetxeek hartzen dute parte eta udako kanpamentuetan, berriz, euren kabuz, nahi duten haurrek. Mendigorria izan zen Ostadar elkartearen lehen egoitzaren kokalekua baina iaiztik aurrera Beireko aterbean egiten dute lan, euren ekitaldiak aurrera eraman ahal izateko behar dituzten gela guztiak alokatuz.

Natur ikasgela deritzon programa ere iaiz jarri zuen martxan Ostadarrek Cristina Alfonso elkarteko kideak dioenez. Cristina Alfonso zoologian espezializatutako biologa da, baita ingurugiro heziketarako begiralea ere, beste hainbat gauzen artean, eta «oso positibotzat» jotzen du haurrek programa honen bidez lortzen duten esperientzia.

Natur ikasgelan ikastetxeek hartzen dute parte eta Ostadarrek dituen programen artean egokiena aukeratzen dute. «Ikastetxean ematen dutena osatuko duen programa bilatzen dute beti» aipatzen du Cristinak. Gehienez bost egun irauten du natur ikasgelak. Egun gutxiago gelditzeko aukera ere badute haurrek, baita egun bakarrekiko bisitak egi-

teko ere. Normalean, txikienak egun bakarrekiko joaten dira Beirera eta kozkorragoak, berriz, egun batzutan gelditzen dira bertan. Egun bakoitzeko 2.775 pezeta ordaintzen du haur bakoitzak.

IKUSTEKO ETA IKASTEKO AUKERA

«Natur ikasgelaren bidez inoiz ikusi ez dutena hurbiletik ikusteko aukera dute haurrek» azaltzen du Cristina Alfonsok. Aurtengo ikastaroan zainzuriaren kanpaina aztertu eta ikasi dute eta Alfonsoren ustez, «gutziz ezeza-

Ostadarreko natur ikasgelan ikastetxeek hartzen dute parte eta udako kanpamentuetara, berriz, euren kabuz joaten dira nahi duten haurrak.



Zainzuriaren prozesuaz izan zen azken ikastaroa.

EGUNKARIA



Beireko aterbea, Ostadar taldeko egoitza.

EGUNKARIA

guna zen hori etorri diren haurrentzat». Nekazariarekin batera bildu zituzten haurrek zainzuriak eta ondoren, azala kendu, moztu eta azkenik latetan ere sartu zituzten. «Prozesu osoa nolakoa

den ikusteko aukera dute haurrek». Azkenean, gainera, bakoitzak egin duen zainzuri lata etxera eramaten du sari gisa, etxekoek ikus eta dasta dezaten.

Normalean, hirian bizi diren haurrek jotzen dute Beireko aterbera eta ezer gutxi dakite nekazaritza edo abeltzaintzari buruz. Herrietako haurrak ere joaten dira natur ikasgelan parte hartzera. «Lesakako talde bat izan genuen behin. Haurrek animaliak, base-

rriko bizitza eta baita baratza ere ezagutzen zuten, baina ez ordea zainzuriaren prozesua». Guztien neurriko ekitaldiak antolatzen ditu Ostadarrek Cristina Alfonsoren ustez.

Ostadarreko arduradunaren arabera, «haurrak pozik joaten dira hemendik, gauza asko ikasten dute eta astebetez, behintzat, naturarekin harremanetan jartzen dira. Hemendik aurrera naturarenganako izango duten jarrera moldatzeko oso garrantzitsuak izango dira halako ikastaroak».

BARATZAK EZAGUTU NAHIAN

Zainzuriaren kanpainaz gain, baditu Ostadarrek beste hainbat ere. Oro har, urtaro bakoitzak eskaintzen duena aprobetxatzen dute elkarteko kideek. Iaz, mahasbiltzea egin nahi izan zuten baina asko aurreratu zen eta ezin izan zuten. Datorren ikasturtean, hala ere, berriro saiatuko dira.

Ostadarrek, halaber, baratza du aterbearen ondoan eta bertan ere lan egiten dute natur ikasgela eta udal kanpamentuetara joaten diren haurrek. «Tomateak eta beste hainbat baratzi lantzen eta zaintzen dituzte» azaltzen du Cristina Alfonsok. Berotegiak ikusi eta nola funtzionatzen duten ikasteko aukera ere izaten dute haurrek.

Batzuetan, bestalde, talde bezeziak joaten dira Beireko aterbera, heziketa berezia behar duten haur taldeak, hain zuzen. Cristina Alfonsok, besteak beste, 'El Molino-ko' heziketa bereziko haurrak joan ziren aldia gogoratzen du. «Gainontzeko haurrentzat bezala, aukera zoragarria izan zen eurentzat eta oso gustura ibili ziren abere eta barazkien artean».

Garaian garaiko produktuen lantze eta biltze prozesua aztertzeaz gain, badira elkarteak finko dituen hainbat programa ere, eta horiek dira, hain zuzen ere, bere jardueraren bizkarrezurra. Oro har, bost atal nagusitan banatzen dituzte elkarteko kideek euren programak haurrekin lan egiterako orduan.

Lehenengoa lurraren erabilera deitzen dutena da. Honen barruan, besteak beste, ingurunea ezagutu eta demografia edo ekonomia bezalako gaiak aztertzen dituzte. Ekosistemak dira bigarren atalean aztertzen direnak: pinudiak, sotoak, zonalde hezeak, eta abar. Hirugarrena, berriz, antropologia eta etnografia aztertzen dituena da. Horren barruan, antzinako ohiturak, artea, historia, folklorea eta beste hainbat gai ikertzen dituzte. Berreskuratzea eta kontserbazioa lantzen dute haurrek laugarren atalean eta bosgarrenean, azkenik, egun ingurugiroak dituen arazoak.

Mendigorria izan zen elkartearen lehen egoitzaren kokalekua, baina iaiztik aurrera Beireko aterbean egiten dute lan.

Normalean, hirian bizi diren haurrek jotzen dute Beireko aterbetxera eta ezer gutxi dakite nekazaritza edo abeltzaintzari buruz.

«Larraona txikiegi geratu zaigu»

IRENE ARRIZURIETA / IRUNEA

Kepa Altonaga Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) zuzendaria da eta aspaldian unibertsitate munduan murgildua dabil. Egunotan bere etxea Iruñeko Larraona ikastetxea da, han egiten ari baitira azken 23 urteetan bezalaxe aurten ere UEUko ikastaroak.

EGUNKARIA.— Ia mende laurdeneko ibilbidea egin du Udako Euskal Unibertsitateak; hasierako asmoak lortu

EGUNKARIA.— Urtez urte, matrikula eta diziplinak gora doaz baina espazio fisikoa bera da. Ez duzu uste txikiegi geratzen ari dela Larraona ikastetxea?

ALTONAGA.— Txikiegi geratzen ari zaigu duela urte batzuetatik hona. Hori pozgarria da eta aurrekoan esandakoaren froga ere bada. Hau aurrerantz progresioan doa. Inoiz pentsatu dugu hau txikiegi geratu zaigula baina badaude problema bi. Bata, ez dagoela auke-

unibertsitatea uztartu nahia, eta euskal unibertsitatearen atzetik segitzen dugu, baina horretarako gaur egun beste eraketa modu bat behar dugu, orain arte nahiko modu inorganikoa eduki baitugu. Kongresuan pentsatu genuen bazkidetza formula hobea dela, eta bigarrenik ikusi dugu euskal unibertsitatea lortzeko UEU bera bakarrik ez dela nahikoa. Beste eragile sozial, ekonomiko eta politiko batzuekin ere kontaktu behar du-

diko hainbat izenen partehartzea. Beharbada maila akademikoan ez dira interesgarri baina gure gizartean daukaten eraginagatik eta zeresanagatik garrantzitsuak dira. UEUk bide horretatik apostua egin behar zuela uste zuen eta topagune foro irekiaren aldetik daukan garrantzia nabarmentzen saiatu.

EGUNKARIA.— Aurreneko aldiz datorren bati zer esanen zenioke?

ALTONAGA.— Programa ondo aztertzeke eta gustukoena aukeratzeko. Zorionez momentu honetan auskaraz eta gure esparru unibertsitarioan gauzak aukera daitezke gustu eta interes akademikoaren arabera eta

Kepa Altonaga

UEUko zuzendaria



Kepa Altonaga, UEUn.

OSKAR MONTERO

«Dimentsio akademikoa gaintzen duten beste ikastaro batzuk antolatu ditugu aurten eta horren froga da oihartzun handiko hainbat izenen partehartzea».

SOSLATA

Egonkortasun ekonomikoa

Mende laurdena betetzear dagoen erakundeak bide dexentea egin duela ezin uka. Sendotasuna duela, alegia. Hala ere, akademikoki bai baina ekonomikoki egonkortasuna oraindik ez dela lortu azpimarratu du Kepa Altonagak. Hori dela eta, horretan dago heldu diren urteetarako lehen tasuna. «Momentu honetan alde horretatik zalan-tzazko egoera batean bizi gara, UEUk ez baitu lortu bere burua inon artikulatzea. Diru iturriak eskasak izaten dira, batetik, eta bestetik inoiz ez dakigu, urtea nahiko aurreratu egon arte, urte horretan zer dirulaguntza edukiko dugun».

dira, zein da zure balorazioa? **KEPA ALTONAGA.**— Hasierarako asmo bakarra planteatu zen baina formulazio birekin. Bazegoen formula bat, euskararen mundua eta unibertsitatearen mundua uztartzekoa, eta bazegoen asmo berbera adierazteko bigarren formula bat, Euskal Unibertsitatea lortzea. Momentuz ez dugu euskal unibertsitateari lortu, nahiz eta bide horretan nahikoa aurreratu dugula uste. Oostera, aipatu dizudan beste formula hartuko bagenu, euskararen mundua eta unibertsitatearena uztartu egin ditugu. Zorionez eta postasunez diot nahikotxo aurreratu dugula; egia da egoera desberdinak daudela Euskal Herriko fakultate desberdinetan, baina orain 25 urte zegoena erabat aldatu dela esan dezakegu.

ran beste lekuri fisikoki ona denik; eta bestetik, Iruñeak badauka halako erakarpen simboliko berezia. Edozein kasutan egin ditugu beste aukera batzuk ere. Orain ikastaro batzuk, badira hamar urte, Baionan egiten ditugu eta seguru aski formula hori ugartu egingo dugu. Hemen, Iruñeko ikastaroekin segituko dugu baina seguruenik barreiari egingo ditugu eta horretaz hasi gara aspaldi honetan berbetan. **EGUNKARIA.**— Urte honetako apirilean Udako Euskal Unibertsitateak bere lehen kongresua burutu du. Zein izan dira ekarpena aipagarrienak? **ALTONAGA.**— Nik esango nuke ekarpenak bide bitatik etorri direla. Batetik, Udako Euskal Unibertsitateari berari dagozkionak. Onartu egin du bere espiritu zaharra, euskara eta

gula. Gu oso ondo egon gaitzek alde akademikotik baina beste hainbat faktore bideratu behar dira eta horretarako, noski, indarrak batu egin behar dira. Kanpora begira, beste lan bat egin beharra dauka eta pentsatu genuen horretarako patronatu bat sortu behar genuela euskal unibertsitatearen ideiarekin ados dauden erakunde, instituzio eta instantziak bilduta. **EGUNKARIA.**— Erabaki hauek guztiek nolako islada izanen dute egunotan? **ALTONAGA.**— Aurreko urteetan bezala alde akademikoaren zabalatasuna eta sakontasuna lantzen ahalegin berezia egin da. Baina, horregaz batera, dimentsio akademiko hori gaintzen duten beste ikastaro batzuk ere antolatu ditugu eta horren froga da oihartzun han-

ez besterik ezean euskaraz dagoen apur hori. Gero eta gehiago gure ikasle tipikoa da unibertsitate munduko pertsona eta interes konkretu batzuk dauzkana. **EGUNKARIA.**— Zer nabarmenduko zenuke aurtengo ikastaroetatik? **ALTONAGA.**— Hor ere gustu desberdinak daude. Ni unibertsitate munduko pertsona naitenez esango nuke ikastaro monografiko oso politak daudela aurten eta monografikoaren formula arrakastatsu serratatu dela uste dut. Bestalde, gero eta ardatz tematiko interesgarriagoak dauzkagu, erakargarritasun handiagokoak eta freskoak, zeren uztailako ikastaro batean zerbait eramangarria behar da Iruñeko bero pairaezin honekin.

NOSKI JATOR

© Zaldi Eroa

NAFARROA
KAPITAINA
eta
PETILLA
SUBKOMANDANTEA

Gure lagunek
Jupiter eta bere
satelietan Matrikulazio
KAMPAINARI ekin diote.
KALIXTON jarri dutelarik
bulego nagusia...

